

# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO JASANGARRIA ETA INGURUMENAREKIKO ERRESPECTUTSUA

Getxo, hiri-ingurune segurua, jasangarria eta ingurumenarekiko errespetua duena. Hori zen Getxoko EAJ-PNV alderdiak duela ia hiru urteko hauteskunde-programan planteatu zuen esaldia. Hala, proposamen edo konpromiso horrek argi nabarmen zuten Eusko Alderdi Jeltzaleko emakumeek eta gizonek Getxo udalerraren alde egiten dugula; hori baita Getxo itxaropentsu bat lortzeko gure konpromisoa eta zure proiektua; hori guztia, Getxo hazteko, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko udalerrri onenetako bat izan dadin. Konpromiso hori betetzen ari da. Jada duela urtebete, Getxoko Udalak, Amaia Aguirre buru duen udal-gobernuak, Agenda 2030eko ekintza-plana jarri zuen abian. Gure herriko garapen jasangarria sustatzeko ekintzen tokiko ekintza plana, hain zuzen ere. Plan hori errealitate da dagoeneko: jarduketa errealak hartzen ditu barne, eta askotariko foro eta erakundeetako eragileek hartzen dute parte; gauzak horrela, aberastasuna eta balioa eskaintzen dizkiote bai Getxo hiriaren aurrerapenarekiko errespetuari, bai ingurune nahiz ingurumenarekiko errespetuari. Duela egun batzuk, urtarileko udaleko osoko bilkuran, parke eta lorategietako



mantentze-zerbitzua adjudikatu zen, urtean 2,6 milioi eurotan; halaber, jasangarritasunari lotutako irizpide argiak ezarri ziren, hala nola floten nahiz makinaren zarata-eraginak murriztea, ureztaketa telekudeatzea eta zonak automatizatzea ur gutxiago kontsumituz, eta inausketa-hondarrak konpost gisa erabiltzea. 252 berdegune, 517.900 m<sup>2</sup>, eta 14.000 zuhaitz baino gehiago. Ingurumen Gelaz ari gara ere, kontzientziazio- eta informazio-tresna baita, bai ikasleentzat, bai helduentzat. Ezagutu beharreko ekintza da. Eta noski, EAJ-PNVk ingurumenarekiko eta jasangarritasunarekiko duen konpromiso erreal eta egiaztagarriaren baitan, nabarmentzekoa da klima-aldaketaren pertzepzioari buruz Getxon egindako inkesta; udal-webgunean dago eskuragarri, eta termometro gisa erabiliko da Getxo klima-aldaketara egokitzekeo plana egiteko lanetan. Erroka nabarmena da, eta horren bidez getxoitarrei arriskua eragiten dieten klima-aldaketako eraginak zehaztu nahi dira. Ingurumenari eta jasangarritasunari lotutako konpromisoak ere betetzen ditugu!



## 200 APARKALEKU-PLAZA ANDRA MARIN



Ibarbengoako aparkalekua metroarekin konektatzeko disuasioko aparkaleku bihurtzeko asmoarekin erai-ki zen. Alabaina, esan beharra dago ez dituela inolaz ere bete Garraio Partzuergoak zeuzkan itxaropenak. Izan ere, aparkalekuak 294 plaza dauzka eta, erregistroen arabera, 2021. urteko azaroan egunean 31 autok bakarrik erabili zuten. Aparkale-

ku-plaza horiek modu askoz eragin-korrangoan aprobetxatu daitezkeela uste dugu eta, hortaz, proposatu dugu hizpide dugun aparkalekuko 200 partzela gutxienez inguruko herritarrei eskaintzea alokairuan hartu ditzaten. Gauzak horrela, erabilera areagotzen den bitartean, herritarrek behin-behinean erabili ahalko dute. #esnatuGetxo



## GAZTEEK ESPAZIO PROPIOAK BEHAR DITUZTE!

Azken hilabeteotan gure herriko gazteen partetik aldarrikapen zehatz bat ikusi dugu kalean: gazteek gazte espazioak behar ditugu. Eta hau zergatik? Zein da gure gazteen errealitatea? Bada, egungo gazteria etorkizunarekiko inolako espektatibarik garatu ezin duen kolektiboa da. Lan munduan prekarizatuak eta soldata negargarriekin emantzipatzeko ezintasunean aurkitzen dute euren burua. Eta jakin badakigu, bizi proiektu propioa sortu eta garatzeko kabia uztea garrantzitsua dela. Baina nola emantzipatu herri honetan etxebizitzaren alokairu prezioaren batz bestekoa 840€-koa bada? Aisialdiari dagokionean ere, kontsumora mugatua dagoen eredu bakarra dute aukeran. Parkeak eta terrazak bai, baina zein da orduan gaz-

teentzako espazioa? Gure herriak ez die gazteen beharrei erantzuten. Autonomia, gizartearekiko jarrera aktiboa, lankidetzeta... gure ume eta gazteen hezkuntzan funtsezkotzat hartzen diren baloreak dira. Baina gure herriko gazteek euren artean antolatu, helburu komun bat zehaztu eta inoren laguntzarik gabe bide hori urratzeko hautua egin dutenean jartzuak izan dira. Sistema honek, eta zehatzago udal gobernu honek, ez die gure herriko gazteei inolako alternatibarik eskaintzen. Azken udalbatzan gazte hauek hitza hartu eta oso galdera zehatza egin zioten alkateari: zer nolako konpromiso zehatz hartuko duzue egoera honi erantzuteko? Erantzuna ikusteko irrikan gaude.



## LANGILE ETA ENPRESABURU GUZTIENTZAT PENTSATUTAKO LAN-ERREFORMA

Alderdi sozialistak herritarrekin dituen konpromisoak bete ditu. Pedro Sánchezen gobernuak hartutako azken neurri handia **patronalek eta sindikatuek ontzat emandako lan-erreforma onestea** izan da, eta Espainiako enplegua eboluzionaraziko duen mugarria da hori. Zalan-tzarik gabe, lorpen kolektiboa da, tinta sozialistarekin zigilatu dena, eta Espainiako lan-merkatua eraldatzen duen Elkarrizketa Sozialerako Mahaian egin dena, eta seguruagoa eta aurreratuagoa den esparru berria emango dio enpleguaren sektoreari. Gure lan-merkatuko arazo handie-

kin amaituko duen erreforma da, elkarrizketa sozialaren emaitza izan dena eta guztion ordezkari dena. **Hitzarmen hori Getxoko herritarren lan-baldintzetan ere islatuko da, bai eta udalerriko enpresaburuenetan ere. Izan ere, lan-erreforma horren bitartez lan-prekaritate eta -pobreziarekin amaitu nahi da; kontratu mugagabea zein enplegu egonkorra sustatzearen eta behin-behinekotasuna ahalik eta gehien murriztearen alde egiten du, hori baita gaur egungo lan-munduari arazo handietako bat, bereziki gazteen lanari dagokionez.**



## ¡NO AL DERRIBO! ERAISKETARI EZ!

Nagusien Etxearen borroka ez du etenik: duela 35 urtetik Romoko nagusien zerbitzura dagoen Lope de Vega kaleko 12. zenbakiko eraikina babestearen aldeko aldarrikapena mantentzen dute. Aldundiaren eta udalaren proiektu den belaunaldi arteko zentroa eraikitzekeo eraitsi nahi da eraikin hori, baina erabaki hori hartzeko ez zen kontuan hartu erabiltzaileen iritzia, eta Romoko ondarearen eta memoria histori-

koaren aurkako eraso da. Mobilizazio eta sinadura-bilketa ugari egin dira jada; beren iritzia kontuan hartzeko eskatu dute, beren beharrezko errealitateak erantzuten dieten neurriak ezarri ditzaten, betiere zonako ingurunea eta eraikinak errespetatuz. Autokudeaketako eredu komunitarioari herritarrek kontuan hartzen ez dituzten proiektu handiak gailendu zaizkio. [elkarrekin-podemos@getxo.eus](mailto:elkarrekin-podemos@getxo.eus)